



ARRANKUDIAGAKO ELIZALDE PRESTUAREN
UDALA
AYUNTAMIENTO DE LA N. ANTEIGLESIA
DE
ARRANKUDIAGA
(BIZKAIA)

**2019KO AZAROAREN 4AN, ARRANKUDIAGAKO ELIZATEKO UDALAK EGINDAKO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

**BERTARATUTAKO
ZINEGOTZIAK**

=====
ALKATEA

Jesus Maria "Txutxi" Ariznabarreta Zubero jauna. (EH Bildu)

ALKATE ORDEAK

Lehenengo alkate ordea, Itziar Duoandikoetxea Gonzalez anderea.(EH Bildu)
Bigarren alkate ordea, Mainer Birtxinaga Malaina anderea. (EH Bildu)

ZINEGOTZIAK

Mikel Abrisketa Izquierdo jauna. (EH Bildu)
Josu Beaskoetxea Azkueta jauna. (EAJ/PNV)
Ane Miren Esparza Montalban anderea.(EAJ/PNV)
Izaskun Barrenetxea Izagirre anderea.(EAJ/PNV)

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Daniel Maeztu Perez jauna.

=====

2019ko Azaroaren 4an, 18:00ak izanik, hasiera ematen zaio ez-ohiko osoko bilkurari.

**1. OXINBURU ERAIKINA ERABILERA SOZIAL ETA
KULTURALETARAKO BIRGAITZEKO EGIKARITZE PROIEKTUAN
SARTUTA DAUDEN LANEN EXEKUZIOA AURRERA ERAMATEKO
ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUAREN
AZTERKETA ETA ONARPENA.**

Debate y aprobacion del Pliego de Clausulas Administrativas Particulares de las obras comprendidas en el Proyecto de Ejecución para la rehabilitación del edificio Oxinburu para usos sociales y culturales.

2. OXINBURU ERAIKINA ERABILERA SOZIAL ETA KULTURALETARAKO BIRGAITZEKO EGIKARITZE PROIEKTUAN SARTUTA DAUDEN LANEN EXEKUZIOA AURRERA ERAMATEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAREN ONARPENA.

Debate y aprobacion del Pliego de Condiciones Tecnicas de las obras comprendidas en el Proyecto de Ejecución para la rehabilitación del edificio Oxinburu para usos sociales y culturales.

Lehenengo bi puntuen eztabaida batera egingo da, azken finean egitasmo berdinarengatik inguruko pleguak baitira.

Josu Beaskoetxea jaunak (EAJ), hurrengo esaten du:

Hasiera batean BEHARK estudioaren arabera Oxinburuko obra egiteak **821.151 euro** kostatuko zituen (BEZarik gabe). Kantitate hura izan zen haiek presupuestatu zutena. Orain berriz, proiektuak bere osotasunean **1.474.241 euro** kostatuko ditu (BEZarik gabe hau ere, BEZarekin 1.783.831,61 euro), %79,53ko igoera hasierako kantitatearekin alderatuta.

ZELAN DA POSIBLE PROIEKTUA ESKURATU AURRETIK BEHARK ESTUDIOAK 821.151 euroko kantitatea aurreikusi izana eta behin proiektua haiei esleitu zitzaienean 1.474.241 euro? ZE KALKULU EGIN ZUTEN HASIERAN? NOLA LITEKE POSIBLE UDAL GOBERNUAK HORI ONARTU IZANA?.

Eta igoera hori oraindik proiektua hasi gabe dagoela, oraindik ere prezioari dagokionez igoerak eman edo gerta daitezkeela kontuan izan behar delarik.

Lehenengo faseari dagokionez, **1.317.981,80 euro** kostatuko ditu (1.089.241,16+228.740,64 euroko BEZa (%21a)). ETA GERATZEN DENA, ZENBAT FASETAN EGINGO DA? NOLA FINANTZATUKO DA LEHENENGO FASE HAU? ETA GAINONTZEKOA ALA GAINONTZEKOA?

“ESTUDIO DE VIABILIDAD”

Denbora dezente daramagu proiektua zelan finantzatuko duzuen galdetzen eta oraindik ez dugu erantzunik jaso. Denbora dezente daramagu baita ere “estudio de viabilidad” delakoa eskatzen eta oraindik ez dugu haren berririk. Beraz, momentu hau aprobetxatzen dugu (beste behin), bi horiek eskatzeko.

BESTE GALDERA BATZUK

- Ze subentzio izango dira?
- Behin proiektua eginda nola gestionatuko da? Zelan eramango da bertako zerbitzua?
- Benetan uste duzue bideragarria izango dela proiektua?
- Proiektu honen tamaina eta prezioa direla eta, Arrankudiaga-Zollonekin bat doan proiektua dela uste duzue?
- Herritarrei entzun al zaie honen inguruan?
- Heritarrei galdetu al zaie ados dauden proiektu honekin?

GURE ONDORIOA:

Gure ustez (denbora dezente daramagu berdina esaten), mega proiektu hau, urte askotarako gure herriaren egoera ekonomikoa erabat baldintzatuko duen proiektua izango da (Udaletxearen egoera ekonomikoa jota utziko baitu). Denbora asko esaten daramagun bezala, sekulako dirutza behar izango baita hau gauzatzeko eta ondorioz, Udaletxeak ez du beste inbertsio mota batzuk gauzatzeko kapazidarerik izango eta egunerokotasunean ematen diren gastuei aurre egiteko dirurik izango ezta ere.

Egoera horrela beraz, uste dugu obra baten pleguak onartu ahal izateko lehenik eta behin bere osotasunean obra gauzatzearen alde egon behar dela norbera eta behin baino gehiagotan adierazi dugun bezala eta gaurko argumentuak azaldu ondoren, argi geratzen da, EAJ-PNVren udal taldeak ez duela proiektu hau gure herriarentzat inondik inora ere bideragarria ikusten, hori dela eta gure gaurko boza gai honen inguruan ezezkoa izango da.

18:22etan Mikel Abrisketa Izquierdo zinegotzia bertaratzen da.

Txutxi Ariznabarreta alkate jaunak (EH Bildu) erantzuten dio, prezioen igoera bereziki proiektua egin zenetik hona pasatako denborarengatik dela. Materialen prezioak igo direlako eraikuntza sektorean.

Era guztietan, proiektu beharrezkotzat jotzen du Arrankudiagarako. Erabilera anitzetako gunea izango delako, nagusi eta gazteentzat elkargunea eta gaur egun beste leku batzuetan egiten diren beste ekimen batzuk ere bertan egin ahal izango direlako.

Kudeaketari dagokionez, momentuz ez da aurreikusten pertsonal berririk behar izango dela.

Finantziazioaren inguruan esaten du, orain, behin pleguak zehaztuta eta kontratazioaren prezioa ezarrita, negozioazio bat zabaltzen dela finantza erakundeekin mailegua bat eskatzeko asmoz. Ondiño mailegua ezin dela zehaztu dio, baina ziurrenik 500.000 eurotik gorakoa izango dela. Mailegu bitartez finantzatzen ez dena, geldikinetatik finantzatu beharko da. Era berea, tramitatzen ari dira diru-laguntza ezberdinak beste finantziazio bideak lortzeko asmoz. Adibidez, dagoeneko LEADER diru-laguntzaen eskaera tramitatu da eta FEDER diru-funtsetatik dirua lortzeko ere tramiteak egiten ari dira.

Aipatutako pleguak bozkatzen dira:

Plegua administratiboak zein teknikoak boto kopuru berdina jasotzen dute. Aldeko botoak, 4 (EH Bildu). Kontrako botoak, 3 (EAJ). Beraz pleguak onartzen dira.

A Eranskin bezala, akta honekin batera plegu administratiboak eransten dira. Plegu teknikoak, BEHARK arkitektoen aholkularitzak egindako, Oxinburu birgaitzeko obren egikaritze proiektuan agertzen diren zehaztasun teknikoak dira.

Tanto el pliego administrativo como el técnico reciben el mismo número de votos. Votos a favor, 4 (EH Bildu). Votos en contra, 3 (PNV). Por lo tanto, se aprueban los pliegos.

Se adjunta como **anexo 1** junto a este acta los pliegos administrativos. Los pliegos técnicos son las especificaciones técnicas que aparecen en el proyecto de ejecución de las obras de rehabilitación de Oxinburu, realizado por el estudio de arquitectura BEHARK.

3. OXINBURU ERAIKINA ERABILERA SOZIAL ETA KULTURALETARAKO BIRGAITZEKO OBREN ESLEIPENA EGITEKO KONTRATAZIO PROZEDURAREN MAHAIA ERATZEA.

Constitución de la mesa para el proceso de contratación para la adjudicación de las obras de ejecución de la rehabilitación del edificio de Oxinburu para usos sociales y culturales.

Txutxi Ariznabarreta alkate jaunak (EH Bildu esaten du gai hau ez zegoela gai ordenan baina, kontratazioaren pleguekin batera, kontratazioak gidatuko duen mahaiaren osaketa erabaki behar dela.

Beraz, Tokiko Erakundeen, antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoaren erregalamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 83 artikulua jarraituz, urgentziaz puntu hau gai ordenan sartzea bozkutzen da.

Aho batez onartzen da puntua gai ordenan sartzea.

Idazkari jaunak, 9/2017 Arlo Publikoko kontratuen legearen bigarren xedapen gehigarriaren 7 atalean, udal erakundetako kontratazio mahaien inguruan jasota dagoena irakurtzen du. Aipatutako artikuluan jasota dagoena jarraituz, Oxinburuko eraikina erabilera sozial eta kulturaletarako birgaitzeko obren esleipena egiteko kontratazio prozeduraren mahaia osatzeko, alkate jaunak hurrengo proposamena egiten du:

Presidente: Alkatea, Jesus Maria "Txutxi" Ariznabarreta.

Idazkaria: Idazkari Kontu-hartzailea, Daniel Maeztu Perez. Bera interino izanik, langileen zerrendan ez dagoenez funtzionariarik, berari dagokio mahaikide izatea.

Bokala: Udal langile laborala, Julen Gorostizaga Elu.

Aho batez onartzen da alkatearen proposamena.

Eta jorratzeko gai gehiagorik ez denez egon, Udalburuak amaiera eman dio Ekitaldiari eta bilkura 2019ko azaroaren 4an, 19:15etan amaitu da. Akta hau alkateak sinatzen du; eta nik, Idazkariak, Fede ematen dut:

Y sin más asuntos que tratar, la presidencia da por finalizado el acto, siendo las 19:15 horas del 4 de noviembre de 2019. La presente acta es firmada por el alcalde y por mí, el secretario que doy fe de ello.

ALKATEA

IDAZKARIA